

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**793** *1/2021 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 19koa, Kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoeretan kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko.*

I

Espainiako Konstituzioaren 51.1 artikulua ezartzen du botere publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatuko dutela, prozedura efikazen bidez babestuz haien segurtasuna, osasuna eta interes ekonomiko legitimoak.

Agindu hori benetan betetzeko, COVID-19aren pandemiak gizartean eta ekonomian eragindako ondorioak hartu behar dira kontuan, larriak izan baitira hainbat sektoretan. Batik bat kontsumo-harremanei eragin diete, eta, ondorioz, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesari, eta, baldintza horietan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa bermatzea botere publikoei dagokie gehienbat, eta jarduketa espezifikoak egitera behartzen ditu.

Ildo horretan, premiazkoa da kontsumitzaile kalteberen kontzeptua kontuan hartzea, Estatuan kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzen dituen araudikoa, konstituzio-agindu horrekin bat; izan ere, kasu jakin batzuetan, kontsumitzaileak kalteberatasun-egoera berezi batean daudenean, euren eskubideak hobeto babestuko direla bermatuko da, kalteberatasun-egoera horrek eragina izan baitezake kontsumitzailearen erabakietan eta, are gehiago, beste egoera batzuetan onartuko ez lituzkeen kontratu-baldintzak onartzera behartu baitezake. Figura hori dagoeneko jaso da autonomia-erkidegoko araudian, eta, nahiz eta premia hori agerikoa zen munduko osasun-krisialdia gertatu baino lehen, egungo egoerak areagotu egin du kontsumo-harreman batean kalteberatasun-egoera berezian egon daitezkeen pertsona horiek babesteko premia larria.

Beraz, kontsumitzaileen defentsarako Estatuko araudian lehen aldiz sartu da kontsumitzaile kalteberaren figura, eta agintari publikoek zein enpresa pribatuek arreta berezia eskaini beharko diote kontsumo-harremanetan. Kalteberatasun-egoera zehazterakoan, kontsumitzaileen egoera ekonomikoa aipatu ohi da, baina horrez gain, zenbait egoeratan, egungo osasun-krisialdiarekin areago, inguruabar sozial edo pertsonalen ondorioz, mendekotasun-egoera edo babesgabatasun-egoera berezian edo defentsarik gabe daude kontsumo-harremanetan, Europako Batzordeak Kontsumitzailearen Agenda Berriari buruzko 2020ko azaroaren 13ko Komunikazioa argitaratzean gogorarazi duenez: «Kontsumitzailearen erresilientzia indartzea, susperraldi jasangarria lortzeko». Horrenbestez, beharrezkoa da Estatuko araudiak lehenbailehen barnean hartzea kontsumitzaile horien eskubideek babes indartua behar izatea eragiten duten inguruabarrak.

Kontsumitzailearen Agenda Berriak 2020-2025 aldirako Europako kontsumo-politikaren ikuspegia aurkezten du. Agendaren helburuen artean, pandemiaren aurrean kontsumitzaileek gaur egun dituzten beharrei heltzeaz gain, merkatu bakar ekologiko, digital eta justuago baterako neurriak sustatzea nabarmentzen da, kontsumitzaileen konfiantza eta erabakimena indartzeko eta beren interesek babes efikaza izateko kontsumo-harremanetan. Agendak ikuspegi holistikoa du, eta kontsumitzaileentzat interes berezia duten Europar Batasuneko politikak biltzen ditu, beste ekimen batzuk osatuz, hala nola Europako Itun Berdea, Ekonomia Zirkularra edo Agenda 2030 (Nazio Batuen esparruan).

Helburu horiek lortzeko, agendak lehentasunezko bost eremu barne hartzen ditu: a) trantsizio ekologikoa; b) eraldaketa digitala; c) kontsumitzaileen eskubideen babesa eta defentsa; d) kontsumitzaile talde jakin batzuen behar espezifikoak; eta e) nazioarteko lankidetzak. Horien artean, hirugarrenak eta laugarrenak esparru egokia ezartzen dute

azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren testuategia presaz aldatzeko.

Kontsumitzaileen eskubideen babes efikaza are premiazkoagoa bihurtu da COVID-19aren pandemiak kontsumo-jardunbideetan izan duen inpaktu sozial eta ekonomikoaren ondoren. Europako Batzordeak bere Komunikazioan ohartarazi duenez, merkataritza-jardunbide desleialak ugaritu egin dira, eta, hori dela eta, beharrezkoa da estatu kideekin neurri koordinatuak ezartzea, kontsumitzaileen eskubideen babesa bermatzeko, gero eta digitalagoa den ingurune honetan. Ildo horretan, Kontsumitzaileen Agenda Berriak azpimarratzen du beharrezkoa dela ezaugarri edo inguruabarrengatik babes handiagoa behar duten kontsumitzaileen behar espezifikoak heltzea, kontsumo-harreman zehatzetan erabakiak beren interesen arabera hartuko direla bermatzeko.

Besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira agendan: produktuen, ondasunen eta zerbitzuen eskuragarritasuna bermatzeko beharra, bai eta horiei buruzko informazio argia, eskuragarria eta ulerterraza izatea ere; eraldaketa digitalean ikuspegi justua eta ez-diskriminatzailea hartzea; etengabeko hezkuntza, sentsibilizazioa eta prestakuntza, batez ere haur eta adingabeentzako; edo genero-diskriminazioko jardunbideekiko babesa. Laburbilduz, Kontsumitzaileen Agenda Berriak bere politika eta neurrien erdigunean jartzen du egoera kalteberan daudelako kontsumo-harreman batean beren interesen arabera erabakirik hartu ezin duten kontsumitzaileen babesa.

Kontsumitzaileen Agenda Berriak kontsumitzaile kalteberaren kontzeptua jasotzen du, eta azken urteetan kontsumo-esparruko kalteberatasunari buruz berriaz egindako ikerketa teoriko eta enpirikoetan oinarritzen da. Arlo akademikoan eta nazioarteko erakundeek erabilitako literaturan egindako aurrerapen horiek kontsumoaren kalteberatasun-nozio batean biltzen dira, hau da, pertsona jakin batek kontsumo-harremanean balizko emaitza negatiboa lortzeko duen alde aurreko probabilitatean.

Bereziki, kontsumitzaile batek kontsumo-harremanetan emaitza negatiboak lortzeko probabilitatea honako alderdi hauek baldintzatuko dute: informazioa lortzeko edo barneratzeko zailtasunak, produktu egokiak erosteko, aukeratzeko edo eskuratzeko gaitasun txikiagoa izateak, edo merkataritza-jardunbideei men egiteko joera handiagoa izateak. Kontsumitzaile kalteberak babesteko politikak efikazak izateko gako modu prebentiboan jokatzeko duten gaitasuna da, eta, horretarako, balizko emaitza negatiboa gertatu baino lehen kontingentzia horiek pairatzeko probabilitate handiena duten pertsonak edo kolektiboak identifikatu behar dira. Hori dela eta, literatura espezializatuaren zati handi baten oinarria kalteberatasun hori zehazten duten faktoreen identifikazioa da.

Kontsumoaren kalteberatasun-faktoreak identifikatzeak tipologia ugari ekarri baditu ere, oinarriko adostasun batzuk daude mundu akademikoan.

Lehenik eta behin, onartzen da kalteberatasun-egoera ez dutela inguruabar pertsonalek bakarrik eragiten, baizik eta jatorri demografikoa, soziala eta merkatu-ingurune zehatz bakoitzarekin zerikusia duten alderdiak ere kontuan hartu behar direla.

Bigarrenik, eta aurrekoarekin lotuta, adostasun orokorra dago kontsumo-harremanetan kalteberatasuna eragiten duten baldintzak ez direla ekonomikoak bakarrik; hau da, kalteberatasuna ez dute errenta-mailaren adierazleekin neurtu ohi diren baldintzek soilik eragiten. Ildo horretan egindako lehen aurrerapen teorikoak joan den mendeko laurogeita hamarreko hamarkadakoak dira, eta merkatu espezifikotako, hala nola farmazia-produktuetako edo elikagaigintzako, kontsumo-kalteberatasunari buruzko azterlanetan dute sorburua. Kasu horietan argi eta garbi ikusten zen faktore biologikoek eta kulturalak berebiziko garrantzia zutela zenbait gizabanako edo kolektiboren kontsumo-harremanetan kalteberatasuna zenbatesteko.

Gerora egindako ikerketek berretsi dutenaren arabera, kontsumo-kalteberatasuna dimentsioaniztuna izateak, hau da, hainbat dimentsiotako faktoreekin duen loturak, kontsumo-eremu guztiei eragiten diela, eta bereziki nabarmenak direla kontsumo-sektore espezifiko batzuetan, hala nola finantzaren, energiaren edo merkataritza elektronikoaren sektorean.

Hirugarrenik, azterlan akademikoen arabera, kontsumoaren esparruko kalteberatasuna kontzeptu dinamikoa da, hau da, ez ditu pertsonak edo kolektiboak modu egiturazkoan edo iraunkorrean kalteberatzat hartzen. Horrela, pertsona bat kalteberatzat hartu daiteke kontsumo-esparru jakin batean, baina ez beste batzuetan. Gainera, kalteberatasun-egoera hori denboran zehar aldatu ahal izango da, baldintza pertsonalak, sozialak edo testuingurukoak aldatzen baldin badira. Azken batean, ikerketa espezializatuek baieztatzen dutenaren arabera, edozein pertsona izan daiteke kaltebera bizitzako uneraren batean, kontsumo-harreman espezifikoaren batean.

Hurbilketa teoriko eta kontzeptual horrekin bat etorritz, esan nahi da Europako araudiak kontsumitzaile kalteberak babesteko agintzen duela, ez bakarrik alderdi ekonomikoan (orain arte sektoreko araudian egin den bezala), baizik baita beste inguruabar batzuk kontuan hartuta ere, hala nola adina, sexua, jatorri nazionala edo etnikoa, jaioterria, pertsona alergikoak edo elikadura-intolerantziaren bat dutenak, genero-indarkeriaren biktimak, guraso bakarreko familiak, langabeak, desgaitasunen bat duten pertsonak, gaixoak, gutxiengo etniko edo linguistikoak, beren ohiko bizilekutik aldi baterako lekualdatutako pertsonak, migratzaileak edo nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak, gabezia ekonomikoak dituzten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, edo desabantaila sortu eta kontsumo-harremanetan eragina izan dezakeen beste edozein inguruabar. Horren harira, Europako Parlamentuak, Kontsumitzaile kalteberen eskubideak indartzeko estrategiari buruzko 2012ko maiatzaren 22ko Ebazpenean, edo, Kontseiluarekin batera, 2014ko otsailaren 26ko 254/2014 Erregelamenduan, 2014-2020 aldirako Kontsumitzaileen Urte Anitzeko Programari buruzkoan, adierazi zuen kontsumitzaile kalteberak babestearen alde egiten duela argi eta garbi, lege-xedapen bereziak txertatuta.

Beraz, kontuan izan behar da hainbat arrazoik zehazten dutela kontsumitzaile eta erabiltzaileen balizko kalteberatasun-egoera, dauzkaten kontsumo-harreman espezifikoak kontuan hartuta. Garrantzitsua da aipatzea kontsumo-harremanak diseinatzean ez direla kontuan hartzen berdintasun-baldintzetan moldatzeko eta beren eskubideak gauzatzeko oztopo bereziak dituzten pertsona talde jakin batzuen premiak eta inguruabarrak. Hala, aldagai psikosozial jakin batzuek (adinak, sexuak, jatorri nazionalak edo etnikoak, jaioterriak edo desgaitasunak, besteak beste) kontsumo-harremanetan duten inpaktuak egoera bereziki kalteberan jartzen ditu kontsumitzaileak, eta horrek eskubideei babes handiagoa emateko eskatzen du. Era berean, honako egoera hauek ere hartu behar dira kontuan: hizkuntza ez jakitea, prestakuntza-maila (orokorra edo merkatu-sektore batekoa), bizilekua, egoera soziala, ekonomikoa eta finantzarioa, baita teknologia berriak ondasun eta zerbitzuen merkatura sartzeko tresna edo bide normalizatutzat erabiltzeak sor ditzakeen arazoak ere. Gainera, garrantzitsua da kontuan hartzea aipatutako kausa edo faktore batzuek aldi berean eragin dezaketela edo elkarren artean elkarreagin dezaketela, eta, hala bada, kalteberatasun-egoera areagotu egiten dela.

Horrek guztiak esan nahi du Espainiako kontsumitzaileen eta enpresaburuen arteko merkataritza-harremanetan egoera bereziki kalteberan egon daitezkeen kolektiboen artean hainbat pertsona talde hartu behar direla kontuan.

Adineko pertsonak dira Espainiako kontsumitzaile talde handienetako bat. Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) 2020ko urtarrileko behin-behineko datuen arabera, Espainiak guztira dituen 47.332.614 biztanletatik 9.278.923 pertsona 65 urtetik gorakoak dira, hau da, biztanleria osoaren % 19,6. Askotan, adinarekin lotuta egon daitezkeen faktoreek, hala nola osasun-egoerak, belaunaldien arteko aldeak edo maila soziokulturalak, eragina dute adineko kontsumitzaileek baldintza berdinetan moldatzeko duten aukeran, batez ere egungo informazioaren gizartean. Gainera, adinekoek, batzuetan, arazoak izaten dituzte kontsumo-harremanetan informazioa sortzeko edo emateko moduarekin, eta, ondorioz, arriskua handiagoa dute jokabide akastunak izateko. Gainera, adinarekin lotutako aurreiritziekin eta estereotipoekin lotutako oztopoak ere izaten dituzte. Belaunaldien arteko alde horrek eragina izan dezake kontsumo-harremanetan, adibidez, online kontsumoan; izan ere, EINeren datuen arabera, 65 eta 74 urte bitartekoen artean Internet maiz erabiltzen

dutenak % 60 baino gutxiago dira; asko aldentzen da 16 urtetik gorako biztanleria osoaren % 83,1eko datutik.

Era berean, kalteberatasunak zeharkako genero-osagai bat ere baduela ikus daiteke; izan ere, Espainian 65 eta 99 urte bitartean dituztenetatik, emakumeak % 57 dira. Gainera, Emakumeen Institutuak emandako informazioaren arabera, adineko emakumeak gizonak baino maizago bizi dira bakarrik, diru-sarrera txikiagoak dituzte, gaixotasun kronikoak gehiago izaten dituzte, eta beren osasunari eta bizi-kalitateari buruzko pertzepzio subjektibo okerragoa dute.

Kontsumo-harremanak berdintasun-baldintzetan garatzea eragozten edo zailtzen duten beste oztopo batzuen artean, generoaren gaia kalteberatasun-faktoretzat har daiteke. Adibidez, EINeren datuen arabera, Internet bidez erosten duten emakumeen kopurua gizonena baino 0,9 puntu txikiagoa da. Generoa arlo ekonomikoan pertsonak mendekotasun-egoeran kokatzen dituen egiturazko faktorea da, eta hori argi eta garbi ikusten da gaitasun ekonomikoaren adierazleetan; izan ere, etxeetako urteko batez besteko errenta garbia handiagoa da erreferentziako pertsona gizonetzkoa denean (30.531 euro) emakumezkoa denean baino (25.198 euro). Pentsioei dagokienez, adibidez, eta Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren datuen arabera, emakumeen batez besteko pentsioa 813,52 euro izan zen 2020ko urrian, eta gizonena, berriz, 1.235,18 euro.

Era berean, genero-arrazoiengatik kontsumo-harremanak berdintasun-baldintzetan garatzea eragozten duten zailtasunen artean, genero-indarkeria eta sexu-esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketa kontuan hartu behar dira, eragin berezia dutelako. Genero-indarkeriak gizarte-bazterketa jasateko arriskuan jartzen ditu emakumeak, eta zapuztu egiten ditu lan-munduan sartzeko dituzten aukerak edo independentzia ekonomikorako itxaropenak, biktimek pairatzen duten erasotzailearen kontrolaren ondorioz. Gurutze Gorriaren datuen arabera, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen % 84 pobrezia eta gizarte-bazterketa arriskuan dago, eta horrek zuzenean eragiten die kontsumo-harremanei.

Gainera, generoaren arloan, guraso bakarreko familiak daude. Guraso bakarreko familien % 81ek emakumeak dituzte buru, eta euren beharrezkoengatik desparekotasun-egoera izaten dute kontsumo-harremanetan. Familia horien % 46,8 pobrezia eta gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dago, eta haurren pobrezia-tasa batezbestekoa baino hamabost aldiz handiagoa da. Era berean, etxe horietako buru diren emakumeek enplegarritasun-egoera ezegonkorrak izaten dituzte, enpresek lana eta familia bateragarri egiteko aukera gutxi eskaintzen dituztelako, eta, ondorioz, horietako asko langabezian edo lan-egoera irregularrean egon daitezke, bizi duten egoeragatik.

Arreta berezia jarri behar zaio, halaber, haur eta nerabeen egoerari; izan ere, EINeren arabera, biztanleria osoaren % 17,6 dira, eta 16 urtetik beherakoena da pobrezia erlatibo pairatzeko arrisku handiena duen kolektiboa, bizi-baldintzei buruzko inkestaren arabera. Kontsumo-harremanetan, adibidez, haurrek eta nerabeek sentiberatasun handiagoa dute publizitatearekiko eta merkataritza-jardunbide oldarkorrekiko. Gainera, gaitasun txikiagoa dute arriskua antzemateko, beren osasunerako edo segurtasunerako arriskutsuak izan daitezkeen produktuen itxurak erakarritu senti daitezke, edo sentiberatasun handiagoa izan dezakete substantzia kimiko jakin batzuen toxikotasunarekiko. Kontsumitzailearen Agenda Berriak ohartarazten duenez, hezkuntza iraunkorreko, prestakuntzako eta sentsibilizazioko neurriak behar dituzte.

Era berean, desgaitasunen bat duten pertsonak aipatu behar dira, baita egoera horrek haien kontsumo-harremanetan nola eragin dezakeen ere. EINek 2008an egindako (eskuragarri dagoen azken txostena) Desgaitasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun Egoerei buruzko Inkestaren arabera, desgaitasunen bat zuten pertsonak 3.847.900 ziren, eta, horietatik, 65 urtetik beherakoak dira gutxi gorabehera 1.600.000.

Pertsona horiek egoera kalteberan egon daitezke kontsumo-harremanetan moldatzeko, zer erantzun-gaitasun duten. Ildo horretan, pertsona horien kontsumitzaile-eskubideak maizago urratzen dira; izan ere, askotan, ondasun, produktu eta zerbitzuen merkatuak ez

ditu irisgarritasun unibertsaleko baldintzak betetzen, eta, beraz, zailagoa izaten da kontsumitzaile horiek babestuta sentitzea. Adibidez, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak, beharbada, ezin izango dute eguneroko produktuen etiketetan jasotako informazioa eskuratu.

Bestalde, kontsumitzaileen errenta-maila da herritar guztiengan eragina izan dezakeen faktore garrantzitsuena baina, batez ere, aipatutako kalteberatasun-egoera berezian dauden kolektiboengan izan dezake eragina. Zehazki, eta EINeren bizi-baldintzei buruzko inkestaren arabera, 2019an populazioaren % 25,3k pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskua zuen (ARPE tasa) Espainian. Datu horrek oraindik ez zuen kontuan hartzen COVID-19aren ondorioz pairatzen ari garen krisialdi ekonomikoaren eragina. Inpaktu hori kontuan hartzen du Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren aurka borrokatzeko Europar Sareak (EAPN), biztanleriaren % 9,2k, lau milioi pertsonak baino gehiagok, «pobrezia larria» pairatzen duela kalkulatzeko. Datu hori bat dator Espainiako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundeak eta antzeko kontsumitzaile elkarteek egindako azterlanekin, 2020an familien % 10 ez zirela hilabete amaierara iristen erakusten baitute.

Prestakuntza- eta kultura-mailak ere eragin handia izan dezake kontsumo-harremanetan, eta kalteberatasun-egoeran jar ditzake ikasketa-maila txikieneko kontsumitzaileak. Kontuan izan behar da, gaur egun, Espainian 577.600 analfabeto funtzional inguru daudela, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren azken datuaren arabera, eta horrek eragin zuzena duela, adibidez, kontsumo-harremanetan ematen zaien informazioa zehatz ulertu ahal izateko gaitasunean.

Garrantzi berezia hartzen duen beste faktore bat aro digitaleko kontsumo-harremanetan gertatzen den arrakala digitala da. Aurrerapen teknologikoaren ondorioz alderdi askotan kontsumo-aukera berrietara ireki bagara ere, Interneterako konexiorik ez duten biztanleen % 4,7 kaltebera bihurtu daiteke. Zerbitzu horiek eskuratu ahal izatea garrantzitsua da kontsumo-harremanetan berdintasun-baldintzetan moldatzeko, baina, gainera, ezinbestekoa da trebetasun eta ezagutza teknologikoak eskuratzea, online merkataritzan modu egokian jarduteko. Alderdi horretan ere desberdintasun handia dago adinaren arabera, 74 urtetik gorako biztanleen % 17,1ek soilik erabiltzen baitu egunero Internet, EINeren datuek diotenez.

Era berean, bizilekua ere kalteberatasuna pairatzeko arrazoia izan daiteke kontsumo-harremanetan. Aipatutako banku-zerbitzuak eskuratzeko zailtasunaz gain (Espainiako Bankuaren arabera, Espainiako 4.109 udalerrik, udalerririk guztien % 51,8k, ez dute banku-bulegorik), garrantzitsua da aipatzea, halaber, 10.000 biztanletik beherako hirien % 26,3k ez dutela banda zabal finkoko Interneterako sarbiderik gutxienez 16-74 adin-tarteko kide bat bizi den etxeetan. Egoera horiek guztiek, gainera, gora egin dute COVID-19ak eragindako krisi sanitarioarekin, eta, horren ondorioz, handitu egin da ekonomikoki kalteberatasun-egoeran dauden kontsumitzaileen kopurua. Hala, Espainiako Gobernuak krisi sanitarioak ekonomikoki kalteberenak diren biztanleengan dituen ondorioak arintzeko luzamenduak abian jarri zituenetik eta irailaren 30era arte, hipotekarako 226.000 legezko luzamendu eta kontsumorako 366.000 kreditu-luzamendu eman dira, Espainiako Bankuaren informazioaren arabera. Halaber, 793.000 luzamendu eman dira (hipotekazkoak eta hipotekazkoak ez direnak), bankuko esparru-akordio sektorial baten babesean.

Beraz, ikus daitekeenez, pertsona bat bere kontsumo-harremanetan kalteberatasun-egoeran jar dezaketen arrazoi endogenoak eta exogenoak ugariak dira, eta ez da egoera ekonomikoa soilik kontuan hartu behar, orain arte sektore-mailan gai hau horrela bideratu bada ere.

Azaldutakoa kontuan hartuta, errege lege-dekretu honen artikuluek hizpide dituzte kontsumitzaile eta erabiltzaileei eragiten dieten kalteberatasun-egoera jakin batzuei aurre egiteko hartutako presako neurriak.

Hala, lehenengo artikuluan Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bategina aldatzen da, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zena.

Testu bateginaren funtsezko aldaketak 3. artikuluari eragiten dio, kontsumitzaile eta erabiltzailearen kontzeptu orokorrari hain zuzen, kontsumitzaile kalteberaren definizioa sartzeko.

Horrela, bada, arau honen ondoreetarako, eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudi sektoriala alde batera utzi gabe, kontsumo-harreman zehatzei dagokienez hauek hartuko dira kontsumitzaile kalteberatzat: ezaugarriak, premiak edo inguruabar pertsonalak, ekonomikoak, hezkuntzakoak edo sozialak direla eta, banaka edo taldeka pairatzen duten mendekotasun- edo babesgabetasun-egoera bereziagatik edo defentsarik ezagatik (lurraldea, sektorea edo denbora ere kontuan hartuta), kontsumitzaile gisa dituzten eskubideak baldintza berdinetan erabili ezin dituzten pertsona fisikoak.

Aurreikuspen horren ondorioz (funtsezkoa da, testu bateginean kontsumitzaile kalteberaren kontzeptua zehazten delako), testu horretako hainbat artikulua aldatzen dira kontsumitzaile kalteberaren eskubideen araubidea egokitzeko, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bateginaren aplikazio-eremuan.

Xede horrekin, kontsumitzaile kalteberaren kategoriaren aurreikuspena honako manu hauetan txertatu da:

8. artikuluan, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen oinarrizko eskubideei buruzkoan; horretarako, haren idazketa aldatu da, kontsumitzaile kalteberaren eskubideei dagokiena xedatzeko.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen informaziorako, prestakuntzarako eta hezkuntzarako eskubideari buruzko 17. artikuluari 3. apartatua gehitu zaio, kontsumitzaile kalteberei buruzko erreferentzia kontuan hartzeko. Horrela, xedatzen da arreta berezia eskainiko zaiela konplexutasunagatik edo berezko ezaugarriengatik bezero edo erabiltzaileen artean kontsumitzaile kalteberaren proportzio handiena duten sektoreei, kalteberatasun-egoera jakin hori sortzen duten inguruabarrak zehazki kontuan hartuta.

Aldatu egiten da 18. artikulua 2. apartatua, ondasunak eta zerbitzuak etiketatzei eta aurkezteari buruzkoa, honako hau zehazteko: kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura jarritako ondasun eta zerbitzu guztiek eskuraerazak eta ulerterrazak izan behar dute, betiere erregelamenduz ezarritako eskakizun zehatzak eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den sektore-araudia alde batera utzi gabe (kontsumitzaile kalteberei arreta berezia eskainiko zaie eskakizunetan eta araudian). Nolanahi ere, modu argi eta ulergarrian funtsezko ezaugarriei buruzko informazio egiazkoa, efikaza eta nahikoa sartu edo gehituko da; edo, bestela, informazio hori eskuratzeko aukera emango zaie, bertan zehazten den moduan.

Helburu berarekin, idazketa berria ematen zaio 19. artikuluari, merkataritza-jardunbideei buruzkoari, garrantzi berezia baitu errege lege-dekretu honen xedean. Horretan xedatzen da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes ekonomiko eta sozial legitimoak arau honetan ezarritako moduan errespetatu beharko direla. Gainera, arau zibiletan eta merkataritzakoetan adierazitakoa aplikatuko da, bai eta estatu-mailako erregulazio sektorialetan ezarritakoa eta Europar Batasuneko eta autonomia-erkidegoko araudian jasotakoa ere. Hala, testu bateginera gehituko den aipamenaren arabera, enpresaburuen merkataritza-jardunbideek testu bateginean, Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legean eta Txikizkako Merkataritza Antolatzeiko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legean xedatutakoa bete beharko dute, kasu bakoitzean aplikatzekoa den sektoreko araudia gorabehera.

Horretarako, finantza-zerbitzu eta ondasun higiezinetakoko jardunbideetan, edo telekomunikazioetan edo energia-esparruan, legeak edo erregelamenduak ezarri ahalko direla aurreikusi da, kontsumitzaileari edo erabiltzaileari babes handiagoa emateko. Eta kontsumoan eragiten duten politika publikoen nahiz kontsumitzaile kalteberei zuzendutako merkataritza-jardunbideen xedea izango da kalteberatasuna eragiten duten inguruabarrak aurreikusi eta kentzea kontsumitzaileen edo erabiltzaileen eta enpresaburuen arteko harremanetatik, hala nola ondorioak arintzea, batik bat merkataritza-komunikazioetan edo kontratua sinatu aurretik emandako informazioan, kontratua sinatu osteko arretan edo oinarrizko ondasun edo zerbitzuetarako sarbidean.

Helburu berarekin, aldatu egiten da 20. artikulua, ondasun eta zerbitzuen merkataritza-eskaintza beharrezkoa den informazioari buruzkoa (kasuan-kasuan aplikatzekoa den sektore-araudia alde batera utzi gabe), merkataritza-eskaintza sartu beharreko informazioa kontsumitzaileei edo erabiltzaileei nola eman behar zaien zehazteko. Kontsumitzaileei, eta batez ere kontsumitzaile kalteberei, modu argian, ulergarrian, egiazkoan eta erraz eskuratzeko moduko formatuan emango zaie informazioa, behar bezala ulertzeko eta euren interesen arabera erabaki egokiak hartu ahal izan ditzaten.

Era berean, 43. artikulua aldatzen da, kalitate-kontrolaren arloko lankidetzari buruzkoa, testuari koherentzia semantikoa eta gramatikala emateko, kontsumitzaile kalteberaren figura berriari dagokionez.

Azkenik, aldatu egiten da 60. artikulua 1. apartatua, kontratua sinatu aurretik ematen den informazioari buruzkoa, kontsumitzaile kalteberei eman behar zaien informazioari buruzkoa berariaz xedatzeko, eta zehazten da enpresaburuak modu argi eta ulergarrian eman beharko diola kontratuaren ezaugarri nagusiei buruzko informazio garrantzitsu, egiazko eta nahikoa, batez ere baldintza juridiko eta ekonomikoei buruzkoa, kasuan-kasuan aplikatu beharreko araudi sektorialaren kalterik gabe. Era berean, informazioa zein baldintzatan eta formatutan eman beharko den ezarriko da, batez ere kontsumitzaile kalteberak baldin badira, behar bezala ulertzeko eta euren interesen arabera erabaki egokiak hartzeko aukera izan dezaten.

Bestalde, bigarren artikulua bidez, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onartzen duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren azken xedapenetako lehena aldatzen da, eskumen-tituluari buruzkoa, haren edukia egokitu, eta testu bateginean egindako aldaketekin bat etor dadin. Aldaketa horiek lotura dute Estatuako oinarritzko araudiaren izaera duten eta aldatu nahi diren manuekin.

Aurreko aldaketak Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. arauak Estatuari esleitzen dion eskumen eksklusiboan oinarritzen dira; izan ere, artikulua horrek Estatuari esleitzen dio jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gaineko eskumen eksklusiboa.

Eta hori guztia, kontuan hartuta Estatuak ekonomiaren antolamendu orokorraren gainean duen eskumenak helburu jakin batzuk lortzera bideratutako arau eta jardura guztiak babesten dituela, horien izaera edozein dela ere; horien artean, konstituzio-doktrinak [34/2013 KAE, otsailaren 14koa, 4.b) OJ] politika ekonomiko eta sozialaren printzipio gidarrietan eragitea ezarri du (95/2002 KAE, 7. OJ eta 11. OJ eta ondorengoak: 190/2002 KAE, urriaren 17koa; 228/2003 KAE eta 230/2003 KAE, biak abenduren 18koak). Halaber, zehaztu da, jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gaineko Estatuaren eskumenak barne hartzen duela ekonomia osoaren antolamendua ez ezik, jardura ekonomikoaren sektore edo azpisektore bakoitzaren antolamendua ere, eta, horrela, autonomia-erkidegoek eskumenak esleituta dituzten jardura ekonomikoaren sektore oso zehatzetan jardun ahal izango du Estatuak, Auzitegiak behin eta berriz adierazi duenez, hainbat sektore eta azpisektore ekonomikori buruz (225/1993 KAE, uztailaren 8koa; 16/2018 KAE, otsailaren 22koa; 32/2018 KAE, apirilaren 12koa; 43/2018 KAE, apirilaren 26koa; 63/2018 KAE, ekainaren 7koa; 80/2018 KAE, uztailaren 5koa; 97/2018 KAE, irailaren 19koa; 102/2018 KAE, urriaren 4koa; 85/2015 KAE, apirilaren 30koa).

## II

Gainera, errege lege-dekretuak presako aldaketa batzuk barne hartzen ditu lehenengotik laugarrenera arteko azken xedapenen bidez.

Azken xedapenetako lehenengoak aldatu egiten du 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko.

Horrela, abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretuan (Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurriena) sartutako 1 bis artikulua aldatzen da, utzarazpen- eta botatze-prozedurek eragindako eta beste biziokirik ez duten pertsona ekonomikoki kalteberen egoerei erantzuteko, baita botatzeak etxebizitza batean bizitzeko titulurik ez duten pertsonen eragiten dieten auzi penalei ere.

Aldaketa hori Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 6. arauak Estatuari esleitzen dion eskumen eskusiboan oinarritzen da; izan ere, artikulua horrek legeria prozesalaren arloko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estuari.

Azken xedapenetako bigarrenak aldatu egiten du abenduaren 30eko 11/2020 Legea, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrena, batetik, seigarren xedapen gehigarria indargabetzeko, eta, bestetik, XII. eranskina aldatzeko. Portu-hobariak.

Indargabetu egiten da 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen seigarren xedapen gehigarria, Eskualde Garapeneko Europako Funtsa xurgatzearen arloan, kontuan hartuta partzialki bat datorren erregulazioa dagoela Ikerketarako Estatu Agentziak eta Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioari atxikitako erakunde publikoak) Europar Batasunetik datorren finantzaketa xurgatzearen gainean, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarria. Horrela, argi dago arlo horretan aplikatu beharreko araudia errege lege-dekretu horretan jasotakoa izango dela.

Hori guztia Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 16. arauaren babesean; artikulua horrek ikerketa zientifiko eta teknikoak sustatzeko eta koordinatzeko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estuari.

Bestalde, XII. eranskina aldatzen da. Portu-hobariak, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legekoa, portu-agintaritzen tauletan eta horien oinoharretan dauden omisio-akats batzuk konpontzeko, aldaketa horiek gabe ezinezkoa izango litzatekeelako 2021eko ekitaldirako portu-tasak behar bezala likidatzea.

Aldaketa hauek egin dira:

– Santanderreko Portuko Agintaritzaren portu-hobarien 245.3 artikuluan taula bat sartzea (errege lege-dekretu honen eranskina da).

– Amaierako esaldi jakin batzuk sartzea Bartzelona, Motril eta Vilagarciako portu-agintaritzen 245.3 bis artikuluko eta Las Palmaseko portu-agintaritzaren 182. artikuluko hoberietan.

Presako aldaketa da, lege horren egungo testuan jasotzen ez diren hobariak ahalik eta epe laburrean indarrean jartzeko eta berehala aplikatu ahal izateko, urteko ekitaldiarekin bat etorriz, eta, horrekin batera, 2021eko ekitaldi honetarako portu-tasak behar bezala likidatu ahal izateko.

2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen XII. eranskinaren aldaketa Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 20. arauaren arabera eman da; artikulua horrek Estuari esleitzen dio interes orokorreko portuen arloko eskumen eskusiboa.

Azken xedapenetako hirugarrena Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren manu jakin batzuk aldatzeko gaikuntzari buruzkoa da. Errege Dekretu horrek uztailearen 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren atariko titulua eta I., IV., V., VI., VII. eta VIII. tituluak garatzen ditu.

Horren arabera, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua (uztailearen 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzen dituen) onartzen



duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua maila bereko xedapen bidez aldatu ahal izango da. Aldaketok 2021 urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen azken xedapenetatik bosgarrenaren bidez onartzen dira eta eragina dute 300. artikulua a) apartatuko azken paragrafoan, 303. artikulua lehen paragrafoan, 307. artikulua a) apartatuko azken paragrafoan eta 310. artikuluko lehen paragrafoan.

Xedea da Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzen dituen) onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren xedapenen erregelamendu-maila babestea. Xedapenak 2021 urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen azken xedapenetatik bosgarrenaren bidez aldatu dira: 300. artikulua a) apartatuko azken paragrafoa, 303. artikulua lehen paragrafoa, 307. artikulua a) apartatuko azken paragrafoa eta 310. artikuluko lehen paragrafoa.

Azken xedapenetako laugarrenak aldatu egiten ditu uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bategineko isurketen kontrol-kanonaren oinarriko prezioak.

Helburua da Uren Legearen testu bateginaren 113.3 artikulua bigarren paragrafoan jasotako isurketen kontrol-kanonaren oinarriko prezioak aldatzea. Isurketen kontrol-kanona arroko erakundeen diru-sarrera gisa eratzen da, ingurune hartzailea aztertu, kontrolatu, babestu eta hobetzeko. Era berean, jabari publiko hidraulikoko uren kalitatea babesteko ingurumen-helburua duenez, komeni da bere kuantifikazioa eta 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen laurogeita hemeretzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoa bateratzea.

Hori guztia, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrenak, kanon berberak bereizita kuantifikatzeko bi manu dituela kontuan hartuta:

Alde batetik, laurogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria. Isurpenen kontrol-kanonaren oinarriko prezioak eguneratzea; honako hau xedatzen du:

«Ondoreak izango ditu 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarraldi mugagabea izango du; metro kubikoko oinarriko prezioa 0,01751 euro izango da hiriko hondakin-urarentzat eta 0,04377 euro industriako hondakin-urarentzat, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bateginaren 113. artikulua 3 apartatuko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera».

Bestalde, azken xedapenetako bederatzigarrenaren bigarren apartatuak honako hau ezartzen du:

«Bi. Beste idazketa bat ematen zaio 113. artikulua 3. apartatuko bigarren paragrafoari, eta honela geratzen da idatzita:

“Metro kubiko bakoitzeko oinarriko prezioa 0,01808 eurokoa izango da hiriko hondakin-urarentzat, eta 0,04520 eurokoa industriako hondakin-urarentzat. Oinarriko prezio horiek aldizka berrikusi ahal izango dira Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeetan”».

Interpretazioan eta aplikazioan egon daitezkeen zailtasunak eta horrek dakartzan bilketa- eta jurisdikzio-arazoak saihesteko, azken xedapen hau sartzea proposatzen da, Uren Legearen testu bateginaren 113. artikulua 3. apartatuko bigarren paragrafoa alda dezan. Bertan, hiriko eta industriako hondakin-uren oinarriko prezioaren zenbatekoa finkatzen da, eta, bestalde, berariaz ezartzen da 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ondorerik gabe geratzen direla hemen ezarritakoarekin bat ez datozen oinarriko prezioen kuantifikazioak.

Azken xedapenetako hirugarrena eta laugarrena Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 22. eta 23. arauen babesean eman dira. Artikulu horiek eskumen esklusiboa esleitzen diote Estatuari baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen legegintzaren, antolamenduaren eta emakidaren arloetan (urak autonomia-erkidego batetik baino gehiagotatik igarotzen direnean), baita ingurumena babesteari buruzko oinarritzko legeriaren arloan ere, hurrenez hurren.

## III

Errege lege-dekretu honek bi artikulua, bost azken xedapen eta eranskin bat ditu.

Artikuluetan aldaketa beharrezkoak egiten dira Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren testu bateginean (azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuan) eta testu hori onesten duen Legegintzako Errege Dekretuan.

Eta azken xedapenei dagokienez, honako hau esan nahi da:

Azken xedapenetako lehenengoak aldatu egiten du martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. bis artikulua. Errege Lege Dekretu horrek Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen ditu COVID-19ari aurre egiteko.

Azken xedapenetako bigarrenak aldatu egiten du abenduaren 30eko 11/2020 Legea, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrena.

Azken xedapenetako hirugarrena apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren manu jakin batzuk aldatzeko gaikuntzari buruzkoa da. Errege Dekretu horren bidez, onartu egiten da Uren Legearen testu bateginaren atariko titulua eta I., IV., V., VI., VII. eta VIII. tituluak garatzen dituen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa).

Bestalde, azken xedapenetako laugarrenak aldatu egiten ditu uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren 113.3 artikulua bigarren paragrafoko isurketak kontrolatzeko kanonaren oinarritzko prezioak.

Azken xedapenetako bosgarrena indarrean jartzeari buruzkoa da, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean ezartzen du.

Eranskina Santanderreko Portuko Agintaritzaren portu-hobarien taulari buruzkoa da.

## IV

Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz babestu du aparteko eta premia larriko egoeretan gizartean eragina duten neurriak hartzea. Berme hori lortzeko, premiaren arrazoi esplizituak azaldu beharko dira, bai eta modu formalean ere, arau-testuen izapidetze arruntera jotzea eragozten duen presa zein den adierazita. Behin eta berriz aipatutako Konstituzio Auzitegiaren doktrina betetzen du errege lege-dekretu honek; doktrina hori hainbat epaitan jasota dago, besteak beste, honako hauetan: 6/1983, otsailaren 4koa, 5. O; 11/2002, urtarrilaren 17koa, 4. O; 137/2003, uztailaren 3koa, 3. O; eta 189/2005, uztailaren 7koa, 3.O.

Gaur egungo egoera ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, kontsumitzaile askoren kalteberatasunak okerrera egitearen ondorio larriei aurre egiteko beharra da errege-lege dekretuaren motibazio materiala. Eta aparteko eta premia larriko beharrezana gobernuari dagokion judizio politikoaren eta egokitasun-judizioaren zati da (berriz ere Konstituzio Auzitegiaren 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014 epaia, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa).

Hartutako neurriak, gainera, nahitaezkoztat jotzen dira ukitutako interes orokorreari erantzuteko, eta (uztailaren 21eko 139/2016 KAE, 3. OJ) «zentzuzko lotura edo egokitasun-lotura bat dago kasu gaitzaileko egoera zehatzaren eta lege-dekretuan hartzen diren neurrien artean» (horrela, hasiera batetik, maiatzaren 31ko 29/1982 KAE (ZGE 1982, 29),

3. OJ, eta berriagoak diren 96/2014 KAE, ekainaren 12koa (ZGE 2014, 96), 5. OJ, eta 183/2014 KAE, azaroaren 6koa (ZGE 2014, 183), 4.OJ).

Errege lege-dekretu honek, ez du eraginik izango Estatuaren oinarrizko erakundeen antolamenduan, Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskunderi buruzko zuzenbide orokorrean ere.

Horrekin lotuta, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bateginean egiten diren aldaketen bidez, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren bermea indartu nahi da, kalteberatasun-egoeran daudenen interes legitimoak modu efikazagoan babeste aldera, Konstituzioaren 51.1 artikuluan botere publikoei ezartzen zaien agindua behar bezala betetzeko.

Ondore horietarako, kontsumitzaile kalteberaren figura kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako Estatuko araudian sartzeak ez dio eragiten Konstituzioaren 51. artikuluan jasotako printzipio gidariaren araubide orokorrari; aitzitik, konstituzio-manu horri jarraikiz, berariaz jasotzen ditu pertsonak eta kolektiboak behar bezala babesteko zenbait elementu; izan ere, indarrean dagoen arauditik dagoeneko ondorioztatzen bazen ere, kasu jakin batzuetan baliteke behar bezala positibizatuta ez egotea, eta, beraz, eraginkortasunik ez izatea, batez ere COVID-19ak eragindako aparteko egoera honetan.

Ondorioz, helburua da kalteberatasun-egoeran dauden kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak behar bezala babesteko bermea handitzea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bateginaren esparru orokorrean (bertan jasotzen da kontsumitzaile eta erabiltzailearen definizio orokorra).

Premiazkotzat eta lehentasunezkotzat jotzen da hori egin ahal izatea, pandemiak eragindako gaur egungo inguruabarrak kontuan hartuta, kontsumitzaile eta erabiltzaileen kontsumo- edo zerbitzu-harremanetan eragin handia izaten ari baita. Gainera, kontuan hartu behar da, Europar Batasuneko erakundeek erabakiak behar bezala betetzeko jarduten dela; izan ere, erabaki horiek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen egoera ekonomikoaz gain, berariaz aipatzen dituzte kalteberatasuna eragiten duten beste faktore eta inguruabar espezifiko batzuk.

Europako Batzordeak berriki 2020ko azaroaren 13ko Kontsumitzailearen Agenda Berrian adierazi duenez, kontsumitzaileen kalteberatasunak areagotu egin dira egungo pandemiaren ondorioz. Izan ere, Batzordeak berak adierazi duenaren arabera, pandemiak kontsumitzaileengan dituen eraginen artean dago «finantza-kalteberatasunen esplotazioa; pandemia baino lehenagotik zeuden, baina larriagoak bihurtu dira». Orobat, berariaz dio «pandemiak kontsumitzaileen eguneroko bizitzan eragina duten erronka esanguratsuak planteatu dituela, batez ere produktuen eta zerbitzuen eskuragarritasun eta erabilgarritasunean, bai eta Europar Batasunera, Europar Batasunetik eta Europar Batasunaren barruan egiten diren bidaietan ere». Pandemiak eragindako puntu garrantzitsu gisa, Batzordeak honako hau ere nabarmendu du: «ugaritu egin dira kontsumitzaileei egindako iruzurrak, merkaturatze-teknika engainagarriak eta online erosketetan egindako iruzurra; horien biktima izan dira eta izaten jarraitzen dute gero eta kontsumitzaile gehiagok».

Beraz, presakoa da Estatuko oinarrizko araudia eskakizun horietara egokitzea, estatuari ez dakion ireki prozedurarik arlo horretan egindako ez-betetzeengatik, ez Europar Batasuneko erakundeek abiarazita, ez kaltetutako kontsumitzaile eta erabiltzaile kalteberen demandengatik, behar bezala babestuta ez daudela iritziz gero.

Bestalde, presakoa da, berdintasunezko tratua bermatu behar baita kalteberatasun-egoeran dauden kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen babesean, bereziki eragiten dieten kontsumo-harremanetan. Ildo horretan, premiazkotzat jotzen da Estatuko oinarrizko araudiaren izaerako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bateginaren 3. artikulua aldatzea. Hori dela eta, loteslea izango da autonomia-erkidegoentzat, babes berezia behar duten pertsona horientzako estatuko lurralde osoan gutxieneko babes komun bat zehazteko, hargatik eragotzi gabe autonomia-

erkidegoek, beren eskumenak baliatuz, kalteberatasun-egoeran dauden kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat onuragarriagoak diren erregulazioak ezartzea, baina testu bateginaren arabera ematen zaien babesak murriztu gabe.

Definizio hori oinarritzko izaera duen testu bateginaren 3. artikuluan txertatuta, homogeneotasuna ematen zaio kontsumitzaileak babesteko araudi horizontalari, Europako erakundeek onartutako testuekin bat etorritik, eta argitu egiten da haren izaera ez egiturazkoa, baizik eta kontsumo-harreman espezifikoei buruzkoa. Era berean, errealitate bera aipatzeko, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudian termino desberdinak erabiltzeak sor dezakeen nahasmendua eta segurtasun juridikorik eza saihesten da.

Gaur egun, kontsumo-araudiaren arau-hausteen aurrean kontsumitzaile kalteberak babesten dituen Estatuko araudirik ez dagoenez, babesgabatasun-egoera berezian geratzen dira pertsona horiek egungo pandemiaren aurrean, ez baitago legezko gaikuntzarik –errege lege-dekretuaz gain– kontsumitzaileak babesteko araudia garatu ahal izateko honako alderdi garrantzitsu hauekin: urruneko kontratazioan kontratua sinatu aurretik eman beharreko informazioa; kalteberatasun-egoerak kontuan hartzea kontratuak ez betetzeagatik erreklamazioak jartzean; edo COVID-19aren aurkako babes-produktu jakin batzuei buruzko informazio zehatza ematea kolektibo kaltebera jakin batzuentzako direnean.

Hori dela eta, presakoa da kontsumitzaile kalteberaren figura sartzeko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bateginean; izan ere, gure araudian hutsune bat zegoen, egungo pandemiaren ondorioengatik kontsumitzaile kalteberaren babesgabatasuna eragin zezakeena.

Era berean, presako aldaketa hori ezin hobea da araugintza-teknikaren ikuspuntutik, legearen garapen azkarragoak eta efikazagoak babesten baititu lege-mailarik ez duten gaietarako, errege lege-dekretuaren bidera jo beharrik gabe.

Bestalde, jarraian zehazten da errege lege-dekretu honetan azken xedapenetako lehenengotik laugarrenera bitarteko xedapenetako aldaketak txertatzeko premia larria.

COVID-19ari aurre egiteko Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Dekretuaren 1. bis artikulua aldatzeari dagokionez (Etxebizitzaren esparruan eta garraioen arloan kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko premiazko neurrien abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez sartu zen), utzarazpen- eta botatze-prozedurek eragindako beste bizitokirik ez duten pertsona ekonomikoki kalteberaren egoerei erantzuteko beharagatik aldatzen da, baita botatzeak etxebizitza batean bizitzeko titulurik ez duten pertsonen eragiten dien auzi penaletan ere.

2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legea aldatzeko premiari dagokionez, batetik, seigarren xedapen gehigarria indargabetzeko, esan behar da premia justifikatuta dagoela, kontuan hartuta partzialki bat datorren erregulazioa dagoela Ikerketarako Estatu Agentziak eta Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak Europar Batasunetik datorren finantzaketa xurgatzeari buruz, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian. Beraz, errege lege-dekretuan jasotako legedia aplikatu beharko da.

Bestalde, oso premiazkoa da portu-hobariak aldatzea, lege horren egungo testuan jaso ez diren hobariak lehenbailehen indarrean jar daitezela, hobariak berehala aplikatu ahal izateko, urteko ekitaldiarekin bat etorritik, eta, horrekin batera, 2021eko ekitaldi honetarako portu-tasak behar bezala likidatu ahal izateko.

Azken xedapenetako hirugarrenean eta laugarrenean aipatzen diren aldaketei dagokionez, isurketen kontrol-kanonaren oinarritzko prezioak aldatzeko ezohiko premia larriaren arrazoia da hartzaileei segurtasun juridikoa ematea, bai eta egungo egoera ekonomikoa ere, ukitutako eragileen jarduerari laguntzea eskatzen baitu, jabari publiko hidraulikoko uren kalitatea babesteko politikarekin orekatuta (guztien erakusgarri, honako hau: 61/2018 KAE, ekainaren 13koa, 4.f) OJ).

Bestalde, ordenamendu juridikoa bat dator Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren aldaketen erregelamendu-maila babestearekin, eta horren arrazoia da aldaketa horiek «legeak parlamentuan izapidetzeko ohiko bidetik edo presako prozeduratik eskatzen dena baino epe laburragoan» zehaztu behar direla (31/2011 KAE, martxoaren 17koa, 4. OJ; 137/2011 KAE, irailaren 14koa, 6. OJ; 100/2012 KAE maiatzaren 8koa, 8. OJ).

Halaber, errege lege-dekretua bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak galdegiten dituen printzipioekin: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Beharra eta efikaziaren oinarria da kontsumitzaile eta erabiltzaile kalteberentzat ezartzen diren babes-neurrien interes orokorra, egungo egoeran, babes berezia behar duten kontsumitzaile kalteberak diren aldetik, horien eskubideen defentsa egokia bermatu ahal izateko. Era berean, beharrezkotzat jotzen dira errege lege-dekretuak erregulazioaren xede diren gainerako eremuetan txertatzen dituen aldaketak, premiazkoa baita kasu bakoitzean agerian jarritako gaiei irtenbidea ematea. Proportzionaltasun-printzipioa ere betetzen da, aurrez aipatutako helburuak lortzeko ezinbestekotzat jotzen diren neurriak jasotzen dituelako (139/2016 KAE, uztailaren 21ekoa). Bat dator indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin; izan ere, adierazitako arrazoiak kontuan hartuta aldatzen da, segurtasun juridikoaren printzipioa betetz, eta, azkenik, gardentasunaren printzipioari dagokionez, arau hau salbuetsita dago kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideetatik, errege lege-dekretua baita.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua jasotzen duen baimena baliatuta, Sustapeneko ministroaren proposamenez, eta Ministro Kontseiluak 2021eko urtarrilaren 19ko bileran eztabaidatu ondoren.

#### XEDATZEN DUT:

**Lehenengo artikulua.** *Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, aldatzea.*

Aldatu egiten da Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia. Hona:

Bat. Aldatu egiten da 3. artikulua, eta honela geratzen da:

«3. artikulua. *Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen kontzeptua eta kontsumitzaile kalteberaren kontzeptua.*

1. Lege honen ondoretarako, eta bertako hirugarren eta laugarren liburuetan berriaz xedatzen dena alde batera utzi gabe, kontsumitzaile edo erabiltzaile izango dira beren merkataritza-, enpresa- edo lanbide-jarduerarekin loturarik ez duen helburuarekin diharduten pertsona fisikoak.

Arau honen ondoretarako, kontsumitzaile izango dira, halaber, merkataritza- edo enpresa-jarduerarekin zerikusirik ez duen esparru batean irabazi-asmorik gabe diharduten nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta pertsona juridikoak.

2. Halaber, lege honen ondoretarako, eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudi sektoriala alde batera utzi gabe, kontsumo-harreman zehatzei dagokienez hauek hartuko dira kontsumitzaile kalteberentzat: ezaugarriak, premiak edo inguruabar pertsonalak, ekonomikoak, hezkuntzakoak edo sozialak direla eta, banaka edo taldeka pairatzen duten mendekotasun- edo babesgabetasun-egoera bereziagatik edo defentsarik ezagatik (lurraldea, sektorea edo denbora ere kontuan hartuta), kontsumitzaile gisa dituzten eskubideak baldintza berdinetan erabili ezin dituzten pertsona fisikoak».

Bi. Aldatu egiten da 8. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«8. artikulua. *Kontsumitzaile eta erabiltzaileen oinarrizko eskubideak.*

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eta kontsumitzaile kalteberen oinarrizko eskubideak dira:

a) Beren osasunari edo segurtasunari eragin diezaioketen arriskuen kontrako babesa izatea.

b) Beren interes ekonomiko eta sozial legitimoen babesa izatea; batez ere, merkataritza-jardunbide desleialen kontra eta kontratuetan abusuzko klausulak sartzearen kontra.

c) Jasandako kalteen ordaina jasotzea eta galerak konpontzea.

d) Ondasun edo zerbitzuei buruzko informazio zuzena izatea, eta, orobat, hezkuntza eta dibulgazioa, produktu edo zerbitzuok egoki erabiltzen, kontsumitzen edo gozatzen jakiteko.

e) Kotsultatuak izatea, zuzenean eragiten dieten xedapen orokorrak lantzeko prozesuan parte hartzea eta beren interesak ordezkatzeko, legez eraturako kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte, talde, federazio edo konfederazioen bitartez.

f) Beren eskubideak prozedura efikaz bidez babestuak izatea, bereziki kontsumitzaile kalteberen eskubideak.

2. Kontsumitzaile kalteberen eskubideek arreta berezia izango dute, eta erregelamendu bidez eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den araudi sektorialaren bidez jasoko dira. Botere publikoek beren eskubideak berdintasun-baldintzetan bermatzeko politikak eta jarduketak sustatuko dituzte, bizi duten kalteberatasun-egoera zehatzaren arabera, eta, edonola ere, eskubide horiek erabiltzea eragotz dezaketen izapideak saihesten saiatuko dira».

Hiru. 17. artikuluari 3. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa betetzeko, arreta berezia jarriko zaie, beren konplexutasuna edo berezko ezaugarriak direla eta, bezero edo erabiltzaileen artean kontsumitzaile kalteberen proportzio handiena duten sektoreei, kalteberatasun-egoera zehatza sortzen duten inguruabarrak zehatz-mehatz kontuan hartuta».

Lau. Aldatu egiten da 18. artikuluen 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura jarritako ondasun eta zerbitzu guztiek eskuraerazak eta ulertterazak izan behar dute, betiere erregelamenduz ezarritako eskakizun zehatzak eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den sektore-araudia alde batera utzi gabe (kontsumitzaile kalteberei arreta berezia eskainiko zaie eskakizunetan eta araudian). Nolanahi ere, modu argi eta ulergarrian funtsezko ezaugarri buruzko informazio egiazkoa, efikaza eta nahikoa sartu edo gehituko da; edo, bestela, informazio hori eskuratzeko aukera emango zaie, zehazki honi buruzko informazioa:

a) Ekoizlearen izena eta helbide osoa.

b) Izaera, osaera eta xedea.

c) Kalitatea, kantitatea, kategoria edo ohiko izena edo izen komertziala, baldin badute.

d) Ekoizpenaren edo horniduraren eguna eta lotea; erregelamendu bidez hala eskatzen denean, erabiltzeko edo kontsumitzeko gomendatutako epea edo iraungitze-data.

e) Erabilera edo kontsumo egokirako jarraibideak edo argibideak, bai eta hondakinak, ohartarazpenak eta aurreikus daitezkeen arriskuak behar bezala kudeatzeko jarraibideak ere».

Bost. Aldatu egiten da 19. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«19. artikulua. *Printzipio orokorra eta merkataritza-jardunbideak.*

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes ekonomiko eta sozial legitimoak arau honetan ezarritakoaren arabera errespetatu beharko dira, eta, gainera, arau zibiletan eta merkataritzakoetan, estatu-mailako erregulazio sektorialetan eta aplikatzekoak diren Europar Batasuneko eta autonomia-erkidegoko araudietan ezarritakoa aplikatuko da.

2. Hargatik eragotzi gabe hurrengo apartatuetan xedaturikoa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes ekonomiko eta sozial legitimoak babesteko, enpresaburuek kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat egiten dituzten merkataritza-jarduerak lege honetan, Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legean eta Txikizkako Merkataritza Antolatzeke urtarrilaren 15eko 7/1996 Legean xedaturikoari atxiki beharko zaizkio, kasu bakoitzean aplikatzekoa den sektoreko araudia gorabehera. Ondore horietarako, enpresaburuek kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat egindako jardueratzat hartuko dira hauek: egintza, ez-egite, jokaera, adierazpide edo merkataritza-komunikazio oro, publizitatea eta merkaturatzea barne, zuzeneko lotura duena ondasunak edo zerbitzuak –ondasun higiezinak, eta eskubide eta betebeharrak barne– kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat sustatzearekin, saltzearekin edo hornitzearekin, dela merkataritza-eragiketa baten aurretik, dela hura egin bitartean, edo dela hura egin ondoren.

Ez dira merkataritza-jardueratzat hartzen kontratuzko izaera duten harremanak; halakoak 59. artikuluan xedaturikoari atxikiko zaizkio.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa ez da ezarriko kasu hauetan:

a) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen osasunean eta segurtasunean eragina izan dezaketen merkataritza-jardunbideen arauak, ondasun eta zerbitzuen segurtasunari buruzkoak barne.

b) Metal preziatuekin fabrikatutako objektuen ziurtapenari eta purutasun-mailari buruzko arauak.

4. Gatazkaren bat gertatuz gero, merkataritza-jarduera desleialei aplikagarria zaien legeria orokorrak baino lehentasun handiagoa izango dute honako hauek: lege honetan aurreikusitako merkataritza-jardueri buruzko arauak; botikei, etiketatzeari, produktuen aurkezpen eta publizitateari, prezioen adierazpenari, ondasun higiezinak txandaka erabiltzeari, kontsumorako kredituari, kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutako finantza-zerbitzuak urrutitik merkaturatzeari, merkataritza elektronikoiari, higiezin-baloretako inbertsio kolektiboari, inbertsio-zerbitzuen arloko jokabide-arauei eta balore eta aseguruaren kotizazio-eskaintza publiko edo kotizazio-onarpenari –bitartekotza barne– buruzko merkataritza-jarduerak arautzen dituztenek; eta erkidegoko arauetan merkataritza-jarduera desleialei buruz aurreikusitako alderdiren bat arautzen duen beste edozein sektore-arauk.

Paragrafo honetan aipatzen diren xedapenak ez betetzea praktika desleialtzat hartuko da, iruzurtia izateagatik, Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 19.2 artikuluan xedatzen den termino beretan, lege horretako 20. artikulutik 27.era, biak barne, araututako iruzurrezko praktikak kontuan hartuta.

5. Finantza-zerbitzu eta ondasun higiezinetakako jardunbideetan, edo telekomunikazioetan edo energia-esparruan, kontsumitzaileari edo erabiltzaileari babes handiagoa ematen dioten legeak edo erregelamenduak ezarri ahalko dira.

6. Kontsumoan eragiten duten politika publikoen nahiz kontsumitzaile kalteberei zuzendutako merkataritza-jardunbideen xedea izango da, hala dagokienean, kalteberatasuna eragiten duten inguruabarrak aurreikusi eta, ahal dela, kentzea kontsumitzaileen edo erabiltzaileen eta enpresaburuaren arteko harremanetatik, hala nola ondorioak arintzea, batik bat merkataritza-komunikazioetan edo kontratua sinatu aurretik emandako informazioan, kontratua sinatu osteko arretan edo oinarritzko ondasun edo zerbitzuetarako sarbidean».

Sei. Aldatu egiten da 20. artikuluko 2. apartatua, eta 3. apartatua gehitzen da; honela geratuko da idatzita:

«2. Aurreko apartatuan xedatutakoa betetzeko, eta, hala badagokio aplikatzekoa den sektore-araudia alde batera utzi gabe, merkataritza-eskaintzan sartu behar den informazioa modu argian, ulergarrian, egiazkoan eta erraz eskuratzeko moduko formatuan emango zaie kontsumitzaile edo erabiltzaileei, eta batez ere kontsumitzaile kalteberei, behar bezala ulertzeko eta euren interesen araberako erabaki egokiak hartzeko aukera izan dezaten.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoa ez betetzea praktika desleialtzat hartuko da, iruzurrezkoa izateagatik, Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 7. artikuluan zehazten den moduan».

Zazpi. 43. artikulua c) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Erreklamazio gehien eragiten dituzten ondasun edo zerbitzuak edo, erreklamazio mota dela eta, zentzuz ondoriozta badaiteke kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideentzat bereziki kaltegarriak diren egoerak daudela edo, bereziki, kontsumitzaile kalteberei eragiten dietela».

Zortzi. 60. artikulua 1. apartatuari bigarren paragrafoa gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Kontsumitzaile eta erabiltzailea kontratu edo eskaintza baten bidez lotetsita gelditu baino lehen, enpresaburuak kontratuaren ezaugarri nagusiei buruzko informazio garrantzitsua, egiazkoa eta nahikoa eman beharko dio kontsumitzaile eta erabiltzaileari, modu argi eta ulergarrian, informazio hori testuinguruaren bidez agerikoa denean salbu; bereziki, kontratuaren baldintza juridiko eta ekonomikoei buruzko informazioa eman beharko dio.

Aplikatzekoa den sektoreko araudia alde batera utzi gabe, informazio hori, batez ere kontsumitzaile kalteberak badira, modu argian, ulergarrian, egiazkoan eta erraz eskuratzeko moduko formatuan emango da, eta, hala badagokio, behar den laguntza bermatuko da, behar bezala ulertzeko eta euren interesen araberako erabaki egokiak hartzeko aukera izan dezaten».

**Bigarren artikulua.** *1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten dituena, aldatzea.*

Aldatu egiten da azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoaren 2. apartatua. Legegintzako errege-dekretu horren bidez onetsi egiten da Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina, eta honela geratzen da idatzita:



«2. 8., 9., 17.1 eta 17.3, 18., 23.1 eta 23.3, 25. eta 26. artikulua; lehen liburuko I. tituluko III. eta V. kapituluak eta lehen liburuko IV. titulua oinarrizkoak dira, Espainiako Konstituzioaren 149.1.1, 149.1.13 eta 149.1.16 artikuluetan Estatuari dagozkion eskumenen babesean ematen baitira».

**Azken xedapenetako lehenengoa.** *11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa (Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko), aldatzea.*

Aldatu egiten da 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko. Honela aldatzen da:

Bat. Aldatu egiten da 1 bis artikulua 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«1 bis artikulua. *Alarma-egoerak dirauen bitartean, utzarazpen-prozedurak eta beste bizitokirik ez duten pertsona ekonomikoki kalteberen kaleratzeak etetea, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 250.1 artikulua 2., 4. eta 7. apartatuetako kasuetan, eta utzarazpenak prozedura penal baten ondorio baldin badira.*

1. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak (azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuaren bidez luzatu zen) adierazitako alarma-egoera amaitu arte, epaileak ahalmena izango du botatzeak eteteko alarma-egoera amaitu arte, baldin eta Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeko 250.1 artikuluko 2., 4. eta 7. apartatuetan aipatzen diren demandak bideratzeko ahozko epaketak badira, edo ohiko etxebizitzatik inolako gaikuntza-titulurik gabe bizi diren pertsonak botatzea bideratzen den gainerako prozesu penala bada.

Salbuespenez eta aldi baterako ezartzen diren etete-neurri horiek ez dute eraginik izango urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak (azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuak luzatua) adierazitako alarma-egoera amaitzen denean».

Bi. Aldatu egin dira 1 bis artikulua 7. apartatuko b) eta c) letrak, eta honela geratzen dira idatzita:

«b) Pertsona fisiko edo juridiko baten jabetzako higiezin batean gertatu denean, eta higiezin hori zuzenbidean baliozkoa den edozein tituluren bidez laga badio, bertan, behar bezala egiaztatuta, ohiko bizilekua edo bigarren bizilekua duen pertsona fisiko bati.

c) Ondasun higiezin sartzeko, edo bertan egoteko pertsonen aurkako larderia edo indarkeria erabili denean».

**Azken xedapenetako bigarrena.** *2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legea aldatzea.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin, 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legea honela aldatzen da:

Bat. Indargabetu egiten da seigarren xedapen gehigarria.

Bi. Aldatu egiten da XII. eranskina. 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen portu-hobariak; aldaketa hauek izan ditu:

1. Bartzelonako Portuko Agintaritzan, 245.3 bis hobarrietan, azken esaldi bat gehitu da: «2020ko azaroaren 1etik aurrerako sortzapen-data duten tasa horien likidazioak behin-

behinekotzat hartuko dira, lege hau indarrean jarri aurretik egin baldin badira, eta berrikusi ahal izango dira, hobari hau aplikatuz, subjektu pasiboak eskatuta, lege hau indarrean sartu eta bi hilabeteko epea igaro baino lehen eskatzen baldin badu».

2. Las Palmaseko Portu Agintaritzan, 182. artikuluko hobarietan, esaldi hau sartu da: «(c) C = Mugitutako tonak/emakidan emandako azaleraren metro karratuak. Emakida edo baimen bidez emandako azaleraren okupazio-tasari aplikatuko zaio».

3. Motrileko Portu Agintaritzan, 245.3 bis artikuluko hobarietan, azken esaldi bat gehitu da: «Hobari horiek 2020ko martxoaren 1etik aurrera sortutako tasei aplikatuko zaizkie».

4. Vilagarcíako Portuko Agintaritzan, 245.3 bis artikuluko hobarian, azken esaldi bat gehitu da: «245.3 artikuluekin bat datozen hobari bateragarrien biderkatze-efektuak ezin izango du dagokion tasaren kuota-hobariaren % 40 gainditu».

5. Santanderreko Portuko Agintaritzan, 245.3 artikuluko hobarietan, lehen taula oso bat gehitu da. Taula hori, errege lege-dekretu honen eranskinean ageri da.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** *Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren manu jakin batzuko aldatzeko gaikuntzari buruzkoa da. Errege Dekretu horren bidez, onartu egiten da Uren Legearen testu bateginaren atariko titulua eta I., IV., V., VI., VII. eta VIII. tituluak garatzen dituen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa).*

Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren atariko titulua eta I, IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzen ditu Erregelamendu horrek) onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua maila bera duen xedapen bidez aldatu ahal izango da. Aldaketok 2021 urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 11/2020 Legearen azken xedapenetatik bosgarrenaren bidez onartzen dira eta eragina dute 300. artikuluen a) apartatuko azken paragrafoan, 303. artikuluen lehen paragrafoan, 307. artikuluen a) apartatuko azken paragrafoan eta 310. artikuluko lehen paragrafoan.

**Azken xedapenetako laugarrena.** *Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bategineko isurketak kontrolatzeko kanonaren oinarritzko prezioak aldatzea.*

Aldatu egiten da uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Uren Legearen testu bateginaren 113. artikuluen 3. apartatuaren bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Metro kubiko bakoitzeko oinarritzko prezioa 0,01751 eurokoa izango da hiriko hondakin-urarentzat, eta 0,04377 eurokoa industriako hondakin-urarentzat. Oinarritzko prezio horiek aldizka berrikusi ahal izango dira Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeetan».

**Azken xedapenetako bosgarrena.** *Indarrean sartzea.*

Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2021eko urtarrilaren 19an.

FELIPE e.

## ERANSKINA

## Portu-agintaritza: Santander

Hobariak 2021 (245.3 art.) Ekonomia edo gizartea garatzen laguntzen duten itsas zirkulazioak eta zerbitzuak sustatzeko

Itsas zirkulazio eta zerbitzu estrategikoak edo lehentasunezkoak	Muga-zergen kodeak	Itsasontziaren tasa		Salgaiaren tasa		Igarotze-tasa		Berariazko aplikazio-baldintzak
		Tartea	Balioa	Tartea	Balioa	Tartea	Balioa	
Gurutzaontzi turistikoak		1. geldialdia	% 10			1. geldialdia	% 10	Hala badagokio, itsas-konpainia bereko itsasontziek lege hau indarrean sartu ondoren egindako lehenengo geldialditik aurrera aplikatzen da, neurri berean, tartean adierazitako gutxienerako zirkulazioa gainditzen badu.
		2 eta 6 geldialdi artean	% 25			2 eta 6 geldialdi artean	% 25	
		6 geldialdi baino gehiago	% 40			6 geldialdi baino gehiago	% 40	
Edukiontzia itsas sarrera/irteera, itsas zerbitzu erregularrean. Goratuz kargatzea eta deskargatzea («lift on-lift off» edo «lo-lo»)		10 eta 20 geldialdi artean	% 20	1.000 eta 2.500 TEU artean	% 20			Hala badagokio, lege hau indarrean sartu ondoren egindako lehenengo geldialditik aurrera aplikatzen da, neurri berean; betiere itsas zerbitzuak tartean adierazitako gutxienerako zirkulazioa gainditzen badu. TEU («Twenty Equivalent Unit»): 20 oinen baliokide den edukiontzi-unitatea. Zerbitzu berrietarako, eragiketarik urtean zehar hasten badira, tartearik proportzionalak izango dira lehen eragiketarik urtea amaitu arte igarotako denborarekiko.
		21 eta 40 geldialdi artean	% 30	2.501 eta 5.000 TEU artean	% 30			
		40 geldialdi baino gehiago	% 40	5.000 TEU baino gehiago	% 40			
Edukiontzi hutsak, itsas sarrera/irteera, itsas zerbitzu erregularrean. Goratuz kargatzea eta deskargatzea («lift on-lift off» edo «lo-lo»)				Lehen TEUtik aurrera	% 40			Lege hau indarrean sartu ondoren egindako lehen TEUtik aurrera aplikatzen da, neurri berean; betiere edukiontzia itsas zerbitzu erregularrean garraiatzen badira.
Ro-ro edukiontzia itsas zerbitzu erregularrean				500 TEU baino gehiago	% 40			Hala badagokio, lege hau indarrean sartu ondoren egindako lehen TEUtik aurrera aplikatzen da, neurri berean; betiere itsas zerbitzu erregularrak zerbitzu berrietarako adierazitako gutxienerako zirkulazioa gainditzen badu. Eragiketarik urtean zehar hasten badira, tartearik proportzionalak izango dira lehenengo eragiketarik urtea amaitu arte igarotako denborarekiko. Hobari hori ez da bateragarria 245.3 bis artikuluan ezarritakoarekin.

Itsas zirkulazio eta zerbitzu estrategikoak edo lehenetasunezkoak	Muga-zergen kodeak	Itsasontziaren tasa		Salgaiaren tasa		Igarotze-tasa		Berariazko aplikazio-baldintzak
		Tartea	Balioa	Tartea	Balioa	Tartea	Balioa	
Salgai orokorra, gidariak lagundu gabeko garraio-elementuetan, distantzia laburreko itsas zirkulazioko itsas zerbitzu erregularrean, «con-ro» edo «ro-ro» itsasontzietan.		80 eta 95 geldialdi artean	% 25	50.000 eta 100.000 tona artean	% 10			Hala badagokio, lege hau indarrean sartu ondoren egindako lehenengo geldialditik aurrera aplikatzen da, neurri berean; betiere itsas zerbitzuak tartean adierazitako gutxieneko zirkulazioa gainditzen badu. Hobari hori ez da bateragarria 245.3 bis artikuluan ezarritakoarekin.
		95 geldialdi baino gehiago	% 30	100.000 tona baino gehiago	% 20			
Igarotze-araubideko Bidaiariak eta ibilgailuak, eta Salgai orokorra garraio-elementuetan, distantzia laburreko itsas zirkulazioko itsas zerbitzu erregularrean, «ro-pax» edo «ferry» itsasontzietan.		150 eta 190 geldialdi artean	% 30	400.000 eta 500.000 tona artean	% 20	160.000 eta 200.000 pax artean	% 30	Hala badagokio, lege hau indarrean sartu ondoren egindako lehenengo geldialditik aurrera aplikatzen da, neurri berean; betiere itsas zerbitzuak tartean adierazitako gutxieneko zirkulazioa gainditzen badu. Bidaiariei zein igarotze-araubideko ibilgailuei aplikatuko zaie. Hobari hori ez da bateragarria 245.3 bis artikuluan ezarritakoarekin.
		190 geldialdi baino gehiago	% 40	500.000 tona baino gehiago	% 30	200.000 pax baino gehiago	% 40	
Salgai-araubideko Ibilgailuak, «ro-ro» itsas zerbitzuan	8703E-8703F-8703G-8703H-8703I-8703J-8703K-8703L	80 geldialdi baino gehiago	% 10					Hala badagokio, lege hau indarrean sartu ondoren egindako lehenengo geldialditik aurrera aplikatzen da, neurri berean; betiere itsas zerbitzuak tartean adierazitako gutxieneko zirkulazioa gainditzen badu. Hobari hori ez da bateragarria 245.3 bis artikuluan ezarritakoarekin.
Salgai-araubideko ibilgailuak	8703E-8703F-8703G-8703H-8703I-8703J-8703K-8703L			50.000 unitate eta 100.000 unitate artean.	% 5			Hala badagokio, lege hau indarrean sartu ondoren egindako lehen unitatetik aurrera aplikatzen da, neurri berean; ibilgailuak fabrikatzen dituen talde batekoak diren marka bereko edo desberdinetako unitateei aplikatuko zaie, baldin eta tartean adierazitako gutxieneko zirkulazioa gainditzen bada.
				100.001 unitate eta 150.000 unitate artean.	% 10			
				150.000 unitate baino gehiago	% 15			

Itsas zirkulazio eta zerbitzu estrategikoak edo lehentasunezkoak	Muga-zergen kodeak	Itsasontziaren tasa		Salgaiaren tasa		Igarotze-tasa		Berariazko aplikazio-baldintzak
		Tartea	Balioa	Tartea	Balioa	Tartea	Balioa	
Salgai orokorren «ro-ro» itsas zerbitzua.		10 eta 20 geldialdi artean	% 20					Hala badagokio, lege hau indarrean jarri ondoren egindako lehenengo geldialditik aurrera aplikatzen da, neurri berean, itsas zerbitzuak tartean adierazitako gutxieneko zirkulazioa gaintzen badu, eta 40.000 GT baino gehiagoko itsasontzietarako soilik. Bai geldialdien zenbaketarako, bai hobarietarako, 40.000 GT baino gehiagoko geldialdiak bakarrik hartuko dira kontuan. Hobari hori ez da bateragarria 245.3 bis artikuluan ezarritakoarekin.
		21 eta 40 geldialdi artean	% 25					
		40 geldialdi baino gehiago	% 30					
Itsas konektagarritasuna I: Distantzia laburreko itsas garraioko ro-ro zerbitzuak, roro/conro itsasontziekin. Roro/conro itsas zerbitzu erregular berriak sortzea. (*)				Baldintza espezifikokoak betetzen dituen lehen atoi/erdi-atoi/kamioi/ edukiontzitik. Ezin zaie aplikatu ez MAFiei, ez Cassetei, ez salgai-araubideko ibilgailuei edo garraio-elementuei.	% 40			Uneko urtean edo aurrekoan sortutako distantzia laburreko ro-ro/con-ro ontzien itsas garraioko itsas zerbitzu erregularreko geldialdi guztiei aplikatzen zaie. Itsas zerbitzu erregular bat sortu dela ulertuko da halakoei dagozkien ezaugarriak dituen zerbitzu berri bat sortzen denean eta zerbitzua gutxienez astean bi aldiz ematen bada. Hobari hori ez da bateragarria 245.3 bis artikuluan ezarritakoarekin.
Itsas konektagarritasuna II: Distantzia laburreko itsas garraioko ro-ro zerbitzuak roro/conro itsasontziekin. Roro/conro itsas zerbitzu erregularretan trafikoa handitzea edo trafikoari eustea				Baldintza espezifikokoak betetzen dituen lehen atoi/erdi-atoi/kamioi/ edukiontzitik. Ezin zaie aplikatu ez MAFiei, ez Cassetei, ez salgai-araubideko ibilgailuei edo garraio-elementuei.	% 40			Ro-ro/con-ro itsasontzien distantzia laburreko itsas garraioko itsas zerbitzu erregularren geldialdi guztiei aplikatzen zaie, baldin eta trafikoari eusten badiote edo trafikoa areagotzen badute, tonatan neurtuta, aurreko bi urteetako itsas zerbitzuen batezbestekoarekin alderatuta; astean bi itsas zerbitzu emango dira gutxienez. Hobari hori ez da bateragarria 245.3 bis artikuluan ezarritakoarekin.

Itsas zirkulazio eta zerbitzu estrategikoak edo lehentasunezkoak	Muga-zergen kodeak	Itsasontziaren tasa		Salgaiaren tasa		Igarotze-tasa		Berariazko aplikazio-baldintzak
		Tartea	Balioa	Tartea	Balioa	Tartea	Balioa	
Solteko karga solidoen itsas zerbitzua		15 eta 25 geldialdi artean	% 5					Hala badagokio, lege hau indarrean jarri ondoren egindako lehenengo geldialditik aurrera aplikatzen da, neurri berean; betiere itsas zerbitzuak tartean adierazitako gutxieneko zirkulazioa gainditzen badu, eta soilik 25.000 GT baino gehiagoko itsasontzietarako. Geldialdiak zenbatzeko zein hobarietarako, 25.000 GT baino gehiagoko geldialdiak bakarrik hartuko dira kontuan.
		25 geldialdi baino gehiago	% 10					